

ALDI BATERAKO EGUNEKO ARRETA, ZAINTZAILEAK ATSEDENA HAR DEZAN

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

CREA CONTENIDO RICO CON BLOQUES Y PATRONES

Pertsona 65+ mendekotasuna > Zaintzaileen atsedena errazteko zerbitzuak

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

Mendekotasuna duen pertsonaren (I., II., III. graduak) **familia zaintzailea**.

Kostua

Koordinaketa duen zerbitzua, egoera ekonomikoaren eta erabilera-modalitatearen arabera.

Baldintzak

Zaintzaile nagusia izatea.

Atsedeen hartzeko beharra.

Erroldatzea (12 hilabete).

Zertan datza?

Mendekotasunen bat duten pertsonen aldi baterako zentro edo eguneko zerbitzuetarako sarbidea eskaintzen zaie ([2.5 fitxa](#)). Normalean, familia zaintzaileak artatzen dituzte beren etxeetan. Zerbitzua aktibatzen da zaintzailea aldi baterako bere funtzioa betetzea eragozten dion egoera batean dagoenean (bajan dago, atsedeen hartu behar du, oportetara joan behar du...).

Norentzat?

Mendekotasuna duten pertsonen (I., II., III. graduak-25 puntu edo gehiago Mendekotasuna Baloratzeko Baremoan) **zaintzaile nagusiak eta senideak**, zaintzan atsedena behar dutenak.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Koordainketaren menpe dagoen zerbitzua, hau da, erabiltzaileak zerbitzuaren zati bat ordaintzen du.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

Mendekotasuna duen pertsona eta zaintzailea **etxebizitza eta udalerrri berean erroldaturik egotea**.

Etxebizitza berean erroldatuta egotea 12 hilabetez.

Dagokion egoitza-zerbitzuan edo gau-zentroan sartzeko baldintzak betetzea.

Zaintzailea eta mendekotasuna duen pertsona **elkarrekin bizi direla egiaztatzea**, zainketak Udaleko Gizarte Zerbitzuen txostenaren bidez justifikatzen badira.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Informazio gehiago:

- [Egunean zehar zaintzaileak atsedean hartzeko arreta Araban](#)
- [Egunean zehar zaintzaileak atsedean hartzeko arreta Bizkaian](#)
- [Egunean zehar zaintzaileak atsedean hartzeko arreta Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)